



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

OINARRI ESPEZIFIKOAK, ,ARABAKO KALKULU GUNEA AB SOZIEATEAREN SAP BASIS AHOIKULARI LANPOSTU BAT BETETZEKO LANGILE LAN KONTRATUDUNEN HAUTAKETA ARAUZEN DUTENAK

(deialdiaren kodea: 2024001)

LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:

Azpiegituren Alorrean integratuko da, proiektuaren burutzaren eta, aldi berean, alorreko arduradunaren mendekoan.

Lanbide jardueran AKSAn ondoko eginkizunak bete beharko ditu:

- SAP azpiegituretako berezko lanak, besteak beste: arkitekturaren definizioa, implementazioa, konfigurazioa, mantentzea, monitorizazioa, optimizazioa, arazo eta irtenbideen analisia eta sistemen dokumentazioa. SAP sistemen artean, nagusiki hauek aurreikusten dira: HANA Platform, ERP 6.0, S/4HANA, Solution Manager, BW/4HANA, PO, etab.
- Eremu funtzionaleko egitekoak edo proiektuetako partaide gisa dagozkion lanak, eta SAP azpiegituren atalean sortzen diren beharrezko erantzuteko zereginak, hala nola kopia homogeneousak, igorleak kopiak, sistemen aldaketak, garraioen kudeaketa, aholkularitza eta abar.
- Eskerak eta gorabeherak ebaztea, eta zalantzak eta arazo teknikoak konpontzen laguntzea, proiektu berrietan zein SAP sistemen mantentze lanetan.
- Aholkularitza tekniko ematea eta parte hartzea azpiegituretarako ezarritako jardueretan, SAP sistemekin loturiko proiektu guztietan eta zerikusia duten produktuetan.
- SAPEkin integratzen diren eta Arabako Foru Aldundiaren azpiegiturearen zati diren beste sistema batzuei loturiko administrazio lanak.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Izangaiek posta elektronikoz 2024001@qualisconsultores.es helbidera bidali beharko dituzte oinarri orokorren 3.1) puntuari eskatzen diren agiriak (bidali beharreko mezuak 30 MB baino gehiago baditu, hainbat mezu bidali beharko dira, onartutako muga gainditu gabe haietako batean ere).

Eskaerak aurkezteko epea 2024ko **martxoaren 18an amaituko da.**

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKATUTAKO TITULAZIOA:

- Telekomunikazioetako goi mailako ingeniari-tza edo Informatikako goi mailako ingeniari-tza edo Informatikako lizentziatura edo gradu baliokidea.
- Goi mailako beste ingeniari-tza batzuk, Fisikako edo Matematiketako lizentziaturak edo gradu baliokideak:

LAUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALIOESPENA:

1. FASEA: EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK EBALUATZEA:

Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa (GAI – EZ GAI).

- Honako hauen administrazioari eta konfigurazioari buruzko ezagutzak:
 - SAP Netweaver Platform, ABAP Platform, Solution Manager
 - SAP PO (Process Orchestration)
 - Datu baseak (SAP HANA eta SQL Server)
 - Segurtasuna eta auditoretza SAPen
 - Windows eta Linux zerbitzariak

Goian adierazitako ezagutza espezifikoetako hiru, gutxienez, egiaztatu behar dira zinpeko adierazpen bidez.

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

2. FASEA: MEREZIMENDUEN BALIOESPENA (gehienez 30 puntu):

A) Titulazioak eta egiaztagiriak (gehienez 16 puntu):

A.1) Lanpostuarekin zerikusia duten titulazioak... (gehienez 8 puntu):

- Telekomunikazioetako goi mailako ingeniari-tza edo Informatikako goi mailako ingeniari-tza edo Informatikako lizentziatura edo gradu baliokidea: 7 puntu
- Goi mailako beste ingeniari-tza batzuk, fisikako edo matematikako lizentziaturak edo gradu baliokideak: 4 puntu.
- Lizentziaturari edo goi mailako ingeniari-tzari erantsitako masterra, edo lanpostuaren eginkizunekin lotutako gradu baliokidea: puntu 1.

Lehenengo bi atalak baztertzailak dira, alegia, “Telekomunikazioetako goi mailako ingeniari-tza edo informatikako goi mailako ingeniari-tza edo informatikako lizentziatura edo gradu baliokidea: 7 puntu” zenbatuko dira, edo, bestela, “Fisikako edo Matematikako lizentziaturak edo gradu baliokideak: 4 puntu”. Ez dira inolaz ere batuko bi ataletako puntuak.

A.2) Ziurtagiriak (gehienez 8 puntu):

- SAP ziurtagiri familia hauetako ziurtagiriak izatea balioetsiko da (bat, familia bakoitzeko):

ZIURTAGIRIEN FAMILIA	PUNTUAK
C_HANATEC_XX - SAP HANA	3,5
C_TADM5X_XX / C_TADM_XX - System Administration	2,5
C_PO_XXXX - SAP Process Orchestration	1,5
C_TADM7X_XX - OS/DB Migration	0,5

- Azken 8 urteetan lortutako ziurtagiriak bakarrik balioetsiko dira.

B) Hizkuntzak (4 puntu):

B.1) Hizkuntza: Euskara (2 puntu, gehienez):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,5 puntu.**
 - B2: **1 puntu.**
 - C1: **1,5 puntu.**
 - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da.

B.2) Hizkuntza: Ingelesa (gehienez 2 puntu):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,5 puntu.**
 - B2: **1 puntu.**
 - C1: **1,5 puntu.**
 - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da.

C) Esperientzia (geh. 10 puntu):

- CV, curriculum memoria eta lan bizitzaren txosten eguneratuaren bidezko egiaztapena.

2 urtetik gorako esperientzia azken 4 urteetan, lehenengo oinarrian zehaztutako eginkizunak bete dituen lanpostuetan.

- Oso egoki betetzen du: **10 puntu.**
- Nahiko egoki betetzen du: **7,5 puntu.**
- Egoki betetzen du: **5 puntu.**
- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: **2,5 puntu.**
- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: **0 puntu.**





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Urtebete baino gehiagoko esperientzia azken 4 urteetan, lehenengo oinarrian zehaztutako eginkizunak bete dituen lanpostuetan, sektore publikoko erakunderen batek zuzenean kontratatuta.	<ul style="list-style-type: none">- Oso egoki betetzen du: 10 puntu.- Nahiko egoki betetzen du: 7,5 puntu.- Egoki betetzen du: 5 puntu.- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: 2,5 puntu.- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: 0 puntu.
--	---

Balioespena egiteko:

Ulertuko da:	Baldin eta lehenengo oinarrian deskribatutako hasierako eginkizunen ehuneko hau modu frogagarrian islatzen bada:
Oso ondo betetzen du:	% 100
Nahiko egoki betetzen du	> % 66 eta <= % 100
Egoki betetzen du	> % 33 eta <= % 66
Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka	> % 0 eta <= % 33
Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka	% 0

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

Merezimenduen baremoetan, lanbide esperientziaren ondorioetarako, honako hauek balioetsiko dira: hautagaiak ahaideak zaintzeko edo genero indarkeriagatik eszedentzian egon diren denbora; amatasuna eta aitatasuna babesteko edo erantzukizuna partekatuz norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko xedea duten lanaldi murrizketei edo baimenei egotzi ahal zaien denbora, eta emakume enplegatu publikoek genero indarkeriagatik baimenak erabili dituzten denbora.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

3. FASEA: LANPOSTUAREN PROFILERA EGOKITZEAREN INGURUKO PROBA PSIKOMETRIKOA

- - **Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa (GAI – EZ GAI).**
 - Probak egingo zaizkie 1. fasean gaitzat jo diren eta 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten lau pertsoneri.
 - Proba psikometrikoak:
 - Proba bat edo gehiago egingo dira izangaiak lanpostuaren profilera eta bete beharreko eginkizunetara egokitzen diren baloratzeko.
 - Qualis Consultores de Talento SLk txosten osatu bat egingo du 4. faserako proposatutako hautagai bakoitzaren inguruan.
 - Pertsonaren bat EZ GAI gertatuz gero edo 3. FASE HONETAN uko eginez gero, AKSAK probak egin ahal izango dizkie hurrengo puntuazio onenak dituzten pertsoneri, eta hurrengo fasera (4.era) pasatuko dira gaitzat jo eta lau puntuazio onenak dituztenak.

4. FASEA: GAITASUNEI ETA EZAGUTZA TEKNIKOARI BURUZKO ELKARRIZKETA (gehienez 20 puntu)

- - **Nahitaezkoa da.**
 - Gaitasunei eta ezagutza teknikoari buruzko elkarrizketa 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten lau pertsoneri eta 3. fasean gaitzat jo direnei egingo zaie.
 - Elkarrizketa hautaketa epaimahaiko kideek egingo dute AKSA sozietatearen egoitzan, eta ardatz izango ditu lanpostuko gaitasun orokorrak, zeharkakoak eta teknikoak.
 - Elkarrizketak bi zati izango ditu:
 - **Gaitasunak:** Elkarrizketa honetan honako gaitasun hauek balioetsiko dira: (gehienez, 10 puntu)
 - Taldean lan egiteko gaitasuna
 - Presiopean lan egiteko gaitasuna
 - Komunikazio gaitasuna
 - Autonomia eta iniziatiba
 - Inplikazioa lanarekin

Fase honetako puntuazioa eskala honen arabera aztertutako gaitasunetako bakoitzean lortutako puntuazioen batura izango da:

- Gaitasun maila baxua: 0 puntu





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Gaitasun maila ertaina: puntu 1.
- Gaitasun maila altua: 2 puntu.

- **Ezagutza teknikoa:** Elkarrizketa honetan, ondoko ezagutza hauek baloratuko dira: (gehienez 10 puntu)
 - SAP Netweaver Platform, ABAP Platform, Solution Manager. Gehienez 4 puntu
 - SAP PO (Process Orchestration). Gehienez 2 puntu
 - Datu baseak (SAP HANA eta SQL Server). Gehienez 3 puntu
 - Segurtasuna eta auditoretza SAPen. Gehienez 0,5 puntu
 - Windows eta Linux jzerbitzariak. Gehienez 0,5 puntu

- Gaitasunei eta ezagutza teknikoari buruzko elkarrizketaren akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, hautaketa epaimahaiko kide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.
- Gutxieneko atalase hauek ezartzen dira:
 - Gaitasunen zatia: 5 puntu.
 - Zati teknikoa: 5 puntu.
- 4. FASERA iritsi den hautagaietakoren bat aurreko puntuan eskatutako gutxieneko atalasetara iristen ez bada, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eta gainerako pertsonak aurrera jarraituko dute.
- Fase hori amaitu ondoren gai diren pertsonak lau baino gutxiago badira, hautaketa epaimahaiak ahalmena izango du, egoeren arabera, hurrengo hautagaira edo hautagaietara jotzeko, gai diren gutxienez lau hautagai izan arte.

PUNTUAZIOEN LABURPENA, FASEKA:

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
EG/G	30	EG/G	20	50